

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Garraio Partzuergoa**

Bilboko Metropoli Tren zerbitzuari dagokion izaera ez-tributarioko ondare-prestazio publikoari buruzko Ordenantzaren aldaketaren behin betiko onspenaren iragarkia.

«Bilboko Metropoli Tren zerbitzuari dagokion izaera ez-tributarioko ondare-prestazio publikoari buruzko Ordenantza»ren aldaketaren hasierako onspena, 2021eko abenduaren 3ko 233 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, espedientea jendaurrean egon da hogeita hamar (30) eguneko epean, eta ez da erreklamaziorik, zioen agerpenik edo iradokizunik aurkeztu.

Ondorioz, zera jakinarazten da, aipatutako hasierako onspena behin betikoa bihurtu dela. Ordenantzaren testu osoa, behin betikoz onartutako aldaketak sartuta, hauxe da:

ORDENANTZA BILBOKO METROPOLI TREN ZERBITZUARI
DAGOKION IZAERA EZ-TRIBUTARIOKO ONDARE-PRESTAZIO
PUBLIKOARI BURUZKOA

1. artikulua. — Foru Araudia

Bizkaiko Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 21.5 artikulua (Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araudia Ekonomia Itunean abenduaren 28ko 10/2017 Legea eginiko aldaketetara egokitzeko abenduaren 12ko 7/2018 Foru Arauak ezarritakoa), izaera ez-tributarioko ondare prestazio publikotzat jotzen diren tarifak arautu eta exijitzen dira ordenantza honen bidez.

2. artikulua. — Xedea eta izaera

Honako hauek dira tarifen xedea: modu hertsagarrian ezartzen diren kontraprestazio ekonomikoak, prestazio bat zuzeneko. pertsonifikazio pribatu bidez edo zeharkako eran kudeatzeagatik jasotzen direnak. Zehazki, halakotzat hartuko dira emakida erregimean egiten diren obren ustiapenagatik edo zerbitzuen prestazioagatik exijigarriak direnak, ekonomia mistiko sozietateen, entitate publiko enpresarialen, kapital publiko soileko sozietateen eta zuzenbide pribatuko bestelako formulen bitartez egiten direnean.

Ordenantza honen xedea da eranskinean agertzen diren Bilboko Metropoli Trenaren zerbitzuari dagozkion tarifak arautzea.

Zerbitzu hori Metro Bilbao, SA sozietate publikoak kudeatzen du, zuzenean. Udala da sozietate horretako partaide bakarra.

3. artikulua. — Ordaintzera behartuak

Zerbitzuaren onuradunak daude ordaintzera behartuak.

4. artikulua. — Ordaintzeko betebeharra sortzea

Ondare prestazioaren sortzapena zerbitzua eskatzean edo hastean gertatzen da.

5. artikulua. — Ordaintzeko era

Dagokion garraio-titulua kreditu- edo zordunketa-txartelaren bitartez edo banku-transferentzia bidez ordainduko da.

6. artikulua. — Zenbatekoak itzultzea

Zenbatekoa zati batean edo osorik itzuliko da titulua akats baten ondorioz eskuratu bada edo bi inguruabar hauetakoren bat gertatu bada:

— Titulua erabili gabe eta iraungi gabe egotea.



— Erabili bada, tituluaren indarraldiaren lehenengo hilean baliogabetzeko eskatuko da.

Zenbatekoaren zati bat itzuliko da, baldin eta tituluaren indarraldiaren lehenengo sei hilabeteen barruan ordainketa egin behar duenaren inguruabar pertsonalak drastikoki aldatu badira eta hark titulua behar ez badu.

7. artikulua.— Erabiltzeko zehaztapenak eta baldintzak

Bilboko Metropoli Trena erabiltzerakoan Metro Bilbao, SAK onartutako baldintza orokorrak (Eusko Jaurlaritzako Sail eskudunak onartutakoak) eta bidaiarien trenbide-garraioari buruzko araudia bete beharko dituzte bidaiariek.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrean sartzean Ordenantza hau eta bertan arautzen diren tarifak, indarrik gabe gelditzen da Metro Bilbao, SAKo «Anual 26/Urtekoa 26» izeneko urteko tituluaren tarifa.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean iraungo du indargabetzea edo aldatzea erabakitzen ez den bitartean.

Bilbon, 2022ko urtarrilaren 20an.— Zuzendari Nagusia, Gorka Ugalde Martínez



ERANSKINA / ANEXO

TARIFAK

TARIFAS DEL TÍTULO ANUAL 26 / URTEKOA 26 URTEKO TITULUAREN TARIFAK

	Euro/Euros
Gune 1 Zona	240,50
Gune 2 Zonas	278,50
Gune 3 Zonas	312,00